



Kide agurgarriak

Hasierako aldiari Batzorde bezala abian dauden prozesuei jarraipena ematea eta prestatzen egon garen proiektuak hastea da gure proposamena:

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Jarndualdiko ondorioetan lan egitea Gizarte Zerbitzuko Euskal Sistemari gizarte hezitzaileen lanbide figura sendotzeko bultzatuko dugu.

Informazio eta prestakuntza ekintzei, gehien bat elkargokidei zuzenduta, hasiera emango diegu.

Agur bero bat

Elkargoko Batzordea

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



DÍA MUNDIAL DE LA EDUCACIÓN SOCIAL  
#edusoday2016

**100% EDUCACIÓN SOCIAL**

PROGRAMA DE ACTIVIDADES

10 OCT	20 OCT
21.30H CENA RESERVA PREVIA 00.00H PROYECCIÓN DOCUMENTAL DE LA HISTORIA DE LA EDUCACIÓN SOCIAL EN GALICIA	11.00H PRESENTACIÓN INSTITUCIONAL 11.30H CUENTACUENTOS MÁS QUE CUENTOS 12.30H PROYECTO VIDA PROYECCIÓN DE CORTO Y DOCUMENTAL CON DEBATE

2 OCTUBRE 2016  
OURENSE - GALICIA

OURENSE 2016

## GIZARTE HEZKUNTZAREN MUNDUKO EGUNA 2016

CGCEESk Gizarte Hezkuntza Munduko Eguna urriaren 2an Ourense ospatu zuen. Gizarte Hezkuntza eta Eskola III Jardunaldia eta Munduarterako I Kongresua irailaren 31n eta urriaren 1ean hiri horretan egiten zelarik aprobetzatuz.

CGCEESeko presidentea [Manifiesto del DMES 100% Educación Social](#) irakurri zuen. Horretan gizarte hezkuntza bide

eta persona, zein gizarterako garapenerako gizarte-hezkuntza esku-hartzea izan dezala eskatu zuen, baita Gizarte Hezkuntzako VII.Kongresuan onartu ziren Sevillako Konpromisoak berretsi zituen.

## GHEE-CESPVREN BERRIAK

## GIZARTE HEZKUNTZAREN MUNDU EGUNA

- **Elkargoaren Web-ean**

Aurten, urriaren 2a ospatzeko, Zer da zuretzat Gizarte Hezkuntza? Gaitzat hartuta, Elkargoaren web orrian gizarte hezitzaileek idatziz edo modu plastikoan ekarpenak egiteko proposamena egin genuen. Bi ekarpen egin ziren eta web-orrian daude urriaren 4az geroztik.

- **FHZ UPV/EHU. Donosti**

Urriaren 11n, Donostiako Gizarte Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek, Gizarte Hezkuntza-aren Eguna ospatu zuten goizez. Hainbat txoko antolatu zen, profesional batek txoko bakoitzeko bertaratzen ziren ikasleekin haren espientziak partekatzen zituen. Twitterren, #edusoupv hashtag bitartez, ikasleek *Gizarte Hezkuntza zuretzat zer dar?* galderari erantzutea ahalbideratu zen. Inplikazioa eta lanbidearen garapenari egindako ekarpenak ikasleek eskertzen dizkiegu.

## BERRIKUNTZA ETA EKINTZA SOZIOHEZITZAILEA II JARDUNALDIAK

Azaroaren 16an Bilboko Abandoibarrako Bizkaia Aretoa UPV/EHUko eraikuntzan Irakasle U.E.ko Gizarte Hezkuntza Gradu Kontseilu/Behatokiak antolatutako Berrikuntza eta Ekintza Soziohezitzailea II Jardunaldiak egingo ditu.

[Programa Elkargoren web-ean ikusgai duzue.](#)

## IMAGO KANPAINA

**IMAGO** argazki dokumental bat da, gizarte hezkuntzaren munduari leiho bat zabaldu asmo duena.

Argazkigintzaren diziplinaren bitartez istorioak kontatzen saiatzen da, kamara baten aurrean biluzten diren pertsonena. Argazkilariak inolako paternalismorik gabe entzuten ditu, eta xede ikuslearekin jolastu nahian, interpretatu egiten du egoera. Irudiak balio handia du, izan ere, gaur egun gure gizartean.

**IMAGO** emozioa da, emozio hutsa. Gizarte hezitzaileena eta heziena, berdin, bitarteko, formatu eta plano berean. Obturadore batek iragazitako emozio pertsonalak, gero arte eta estetika gustu handiz itzuliak. Zein da Zein? Jolasean aritzeko aukera ematen digu, harreman horiek kontatzeko asmoz: arlo profesionaletik haratago doazen harremanak dira, gizakiaren haraindikoan sartzen direnak.

**IMAGO** herrialde honetako herri normalkuntzaren eredu eraikitzaile eta duina da, batzuek saldu nahi diguten proiektio *bertindar* eta *koloniatuen* aurrean.

IMAGO Kanpaina Estatuko hainbat hiritan egingo da eta EAEn Bilbon izango da, data eta tokia zehaztu gabe dago.

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

## PEDAGOGIA SISTEMIKOA FAMILIEKIN BURUTUTAKO GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEETAN

Gizarte eta hezkuntza arloan lantzen genuen sistemen teoriak azaltzen duenez, elkarrekiko lotura duten sistemez osatua dago mundua; sistemetako batean aldaketa bat egonez gero gainerako sistemetan ere aldaketa egongo da.

Pedagogia sistemikoak balio handiko ekarpena egiten du: sistema horiek ordenamenduzko hiru legeguzuzentzen dutela dio (**kide izatea, hierarkia eta oreka ordena**), eta horiek errespetatzen ez badira gatazkak sortzen direla.



Sistemen ordena erakusten diguten teoria bat da, gauza edo pertsona bakoitzak dagokion lekuan duen kokapena delarik ordena.

Gizarte eta hezkuntza arloan, familia bateko kide gara, hori da lehen sistema, eta hor aurkituko dugu gure lehenengo kokapena. Ikuspegi sistemikoak lehenik eta behin geure familian kokatzen eta ordenatzen laguntzen digu. Gero, gure lanbidea egikaritzean, esku artean ditugun familietan dagoen ordenari begiratzen ikasten dugu, bertako kideei gatazkak eragiten ari diren desordenak kontziente egiten lagunduz.

Kontziente egite hori famili sistema arakatuta egiten dugu, ohiko erreminten laguntzaz: elkarrizketa eta genograma (ikuspegi zabalagoa erabilita), esaterako; eta teoria sistemikoarena den erreminta batzuk ere bai: **panpinekiko mugimendu sistemikoak** eta **marrazki proiektiboak**, besteak beste.

Ikuspegi sistemikoak, gainera, nahitaezkoztat jotzen du profesionalak laguntza harreman horretan orden naturala aurkitzea, hau da, hezitzaile den aldetik dagokion lekua zein den aurkitzea. Bert Hellinger-ek **bost laguntza orden** bereizten ditu profesional-erabiltzaile harremanean: Gure kasuan, hezitzailearen eta familiaren (heldu eta adingabeko) artean sortzen den gizarte eta hezkuntza harremanean.


Laburki aipatuko ditugu:

1. "Batek daukana baino ez du ematen, eta behar duena baino ez du espero"
2. "Errealitatea den bezala onartzea. Erabiltzaileen indarrak eta ahuldadeak ikustea".
3. "Heldu eta heldu arteko laguntza harremana"
- 4.- "Laguntza harremana pertsonaren haraindikoa da eta bere familia sistemari begiratzen dio"
- 5.- "Pertsona eta honen sistema den bezala onartzea, epaitu gabe".

Esku-hartzean, laguntza orden horiek jarraibide gisa hartzeak familientzako eskuragarriago, presentago, kontzienteago, zentratuago egonarazten gaitu, eta frustrazio profesionaleko eta neke emozionaleko egoerak saihesten laguntzen digu.

### Leioako Gizarte- eta Hezkuntza-Eskuhartze Taldea

## INTERESGARRIKOAK



**Vilar, J.; Riberas, G.; Rosa, G. (2015).** ["Algunas ideas clave sobre ética aplicada en la Educación Social"](#). En *Intervención Psicosocioeducativa en la Desadaptación social* (IPSE-DS), vol. 8, pag. 11-23.



### [RES número 23](#) [Inserción sociolaboral y Educación Social](#)

Una caja con la leyenda [email@aquí](mailto:email@aquí) para que puedas incluir tu email y mantenerte informado de las novedades




### [Educación social y género](#) REVISTA DE EDUCACION SOCIAL Nº63. 2016.




### [Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa](#)

Eskola-absentismoa aurre egiteko dokumentua.



**TRIPLE FOCUS. Daniel Goleman y Peter M. Senge. Ediciones B.2016** En este libro ofrecen a los profesionales de la educación a los padres con hijos en edad escolar y a todo aquel relacionado con la pedagogía, la incorporación de tres conjuntos de habilidades básicas de comprensión: el triple enfoque a través del conocimiento de uno mismo, del conocimiento del otro (empatía) y del conocimiento del mundo (sistémico)



### [EL NOVIO DE MI HIJA LA MALTRATA ¿QUÉ PODEMOS HACER?](#)

Es una guía para madres y padres con hijas adolescentes que sufren violencia de género.

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN**  
**ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA**  
**DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR**  
**ZAITEZTE.**